

HITZAURREA

Udaberriak ez du huts egiten, eta gure zelaietako lore guztiekin batera Lezo Aldizkariaren ale berri hau loratu da. Luze jo du azken loraldia izan zuenetik, izan ere, irailan kale egin zuen. Ugari izan dira, idazle eta irakurle, hutsaz galdegin dutenak eta horrek, ezer baino poztu egin gaitu. Barka ezazue bada, irailekoa, barka ezazue idazleek batez ere, ilusioz lanak prestatu eta gure esku jarri zenituztenak. Irailan, ordea, lan gutxiegi genuen esku artean eta, lore gehiago biltzeko asmoz, udaberrira bitartean zain egotea erabaki genuen. Eta hemen dituzue bi uztak. Hurrengo alerako lanak dagoeneko biltzen ari gara, beraz, ez gehiago itxaron eta bidali.

Aberatsa duzue ale hau, aurreko guztien bidetik, herriko idazleen luma oparoaren lekuko, gustoko izango duzuelakoan gaude.

Ez genuke, ordea, sarreratxo hau amaitu nahi, gure artetik galdu berrian dugun Marc Legasse aipatu gabe. Lezoko herriari haurtzarotik lotua, ez dugu ahaztuko bere azken bisitaldian adierazi zigun indarra eta bizi-grina, biziari eutsi nahi dion herriaren ernamuina. Eskerrik asko, Marc.

Lezo, 1997, apirilak 24.